

Firi  
Fara

GIDA DIDAKTIKOA  
**KAMELEOIA**

2013-2014

## AURKIBIDEA

|                                                               |           |
|---------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1.   JARDUEREN EGITARAUA ETA IRAKASLEAREN PAPERA .....</b> | <b>3</b>  |
| 1.1.   “Kameleoia” ikuskizuna .....                           | 3         |
| 1.2.   Dantzaren enbaxadoreak .....                           | 4         |
| 1.3.   Gida didaktikoa .....                                  | 5         |
| 1.4.   Konpainia baliabide bezala .....                       | 5         |
| <b>2.   PROGRAMAREN HELBURU NAGUSIAK .....</b>                | <b>6</b>  |
| <b>3.   IKASGELETARAKO JARDUEREN PROPOSAMENA .....</b>        | <b>7</b>  |
| 3.1.   Ekoizpenaren izena: Kameleoia .....                    | 7         |
| 3.2.   Kameleoia eta adierazpena .....                        | 10        |
| 3.3.   Kameleoiaren koreografoak .....                        | 12        |
| 3.4.   Nazioarteko Kameleoia .....                            | 14        |
| 3.5.   Kameleoiaren musika .....                              | 15        |
| 3.6.   Kameleoiaren jantziak .....                            | 17        |
| <b>4.   EKINTZEN LABURPENA .....</b>                          | <b>18</b> |
| <b>5.   FITXA TEKNIKOA .....</b>                              | <b>19</b> |



## 1. | JARDUEREN PROPOSAMENA ETA IRAKASLEGOAREN PAPERA

Dantzaz Elkarateak antolaturiko “Firi-Fara” kanpainak, ekintza ezberdinak ditu, haien artean lagungarri, dantza ikastetxeetara hurbiltzeko helburuarekin, eta dantza konpaini profesional bat tresna nagusia izanda: DANTZAZ KONPAINIA.

### 1.1. | “KAMELEOIA” IKUSKIZUNA

Ikastetxeko ikasleak ITZIK GALILI eta JACEK PRZYBYLOWICZ-en koreografiak egindako “Kameleoia” ikuskizunaz gozatu ahal izango du.

Ikuskizuna bukatzean, Dantzaz dantzari eta taldeko kideekin elkarriketa bat izateko aukera izango dute, dauzkaten galderak eta zalantzak argitzeko.

Zuek, irakasleok, batez ere saiatu zaitezte ikuskizunaz gozaten, erlaja zaitezte, eta ikasleak ikuskizuna arretaz segitzen duela, eta ondo ari dela jarraitzen berma ezazue. Ikuskizunarekiko haien adierazpenak ongi etorriak izango dira (txaloak, harridura, barreak...), eta konpainia bezala, gustatzen zaigu horrelako adierazpenak nabaritzea.

Antzokira joan baino lehen, argudio edo haria bilatzerik, eta ezer ulertzeko ez dagoela komenta dezakezue zuen ikasleekin. Estenatokian gertatzen den guztiari azalpenak bilatzea ez da batere komenigarria. Aldiz, gure jarrera obra plastiko baten aurrean daukaguna bezalakoa izan daiteke: **erlajazioa eta kontenplazioa lehenengo urratsak dira disfrutatzen.**



ARGAZKIA: Jose Usoz



## 1.2. | DANTZAREN ENBAXADOREAK

DANTZAZ KONPAINIAREN dantzariak eskoletara joango dira ikasleekin oso saio berezi bat egitera.

Alde batetik, dantzaren bidez, **ariketa eta jolasak** egingo dituzte, dantzaren oinarriak eta dantzarien lana ezagutzeko. Gero, saioan zehar sortutako harremana mantentzeko, dantzariak **kontaktu jarraitzeko** proposatuko diete, harreman “epistolarra” hastea, hain zuzen ere, elkarri gutunak bidaltzea: dantzariak biran dauden lekuetatik postalak bidaliko dizkiete gelei, eta ikasleek *Dantzaren* egoitzara guttunak bidaliko dizkiete dantzariari, “*dantzaren enbaxadoreak*” bihurtzeko. Saio hauetan oso garrantzitsua da zuen presentzia. Gure proposamena “bigarren plano” batean aritzea da, gure dantzariari lehenengoa utziz.

Urrezko aukera da zuen gelaren eboluzioak ikusteko eta taldea beste ikuspegitik jarraitzeko. Saioan egiten diren jarduerak eta haien emaitzak lagungarriak izan daitezke kanpainarekin gero jarraitzeko.

(Saioen bideo txiki bat ikus dezakezue hemen: <https://vimeo.com/70296157>)



### 1.3. | GIDA DIDAKTIKOA

Gida hau idazterakoan, “*Kameleoia*” ekoizpenean parte hartzen duten elementuak eta materialak aukeratu ditugu, eta oinarri gisa erabili ditugu ariketa eta jarduera ezberdinak proposatzeko.

Oso proposamen sinpleak dira, gure konpainiak kanpaina honetan hasitako lanaren jarraipena laguntzeko eta animatzeko, eta, bide batez, zuekiko loturak egiteko. Azken finean, “*Firi-Fara*”-n hasitako proiektua irekia eta guztiona izatea nahi dugu. Ez genuen bakarrik arlo artistikorako ekintzak planteatu nahi, **gusto guztietarako jarduerak utzi dizkizuegu** (eta espero dugu baten bat zuei gustatzea :-))

Ikusiko duzuenek, jarduerak ez daude modu itxian planteatua, oso irekiak dira, eta aldatu eta moldatu daitezke, zuenak izateko.

### 1.4. | KONPAINIA BALIABIDE BEZALA

Kanpaina guzti honek partehartzaile guztiak kontutan izan nahi ditu, edozein momentuan zuei laguntzeko gaude. Edozein galdera, kontsulta, arazo edo iradokizun, kontakta ezazue gurekin **didak@dantzaz.net** korreo elektronikoan, eta poz-pozik zuekin harremanetan jarriko gara!



ARGAZKIA: Jose Usoz



## 2. | PROGRAMAREN HELBURU NAGUSIAK

Proposamen hau, lehen aipatu dugun bezala, *Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko* hurrei zuzenduta dago eta etapa horretako hurrei dagokien garapen eta bilakaera egoeren ezaugarriak kontuan hartu ditugu.

Modu honetan, ingurunea eta hura antzemateko aukera izateaz gain, denboran zehar izandako aldaketak ezagutzeko aukera izango dugu, hau da, historian sakonduko dugu.

Gainera, kontutan izanda, dantza artea dela eta modu berean jarduera fisikoa praktikatzen dugula, irakasgai hauetako eduki guztiak edo behintzat gehienak jorratzeko aukera izango dugu.

Bestalde, dantza komunikatzeko modu bat denez, **giza harremanek bere biziko garrantzia dute**. Hala izanik, ahozko komunikazioa beharrezkoa izango da *bai azalpenetan, bai iritziak agertzerakoan, sentimendu zein bizipenak kontatzerakoan...* gainera, talde lanak burutuko ditugunez, **lankidetzaren beharrezkoa izango da** eta beraien arteko errespetua azpimarratuko dugu.

Azkenik, irakasleak uneoro izango duen paper garrantzitsua azpimarratu nahi dugu, haurrentzako irakaslearen presentziak izango duen eragin positiboagatik.

Hau guztiagatik, ondorengoak dira proposatutako programaren helburu nagusiak:

- Dantza mundua orokorrean ezagutzea.
- Dantza lehenengo pertsonan ezagutzea, protagonista eta ikuslea bezala.
- Dantzari profesional eta dantza konpainia batekiko harremanak sortzea, eta denboran zehar mantentzea.
- Gorputza komunikazio eta adierazpen tresna oso garrantzitsua dela ohartzea.
- Dantza ekoizpen bat ezagutzea: osatzen diren elementuak zeintzuk diren ezagutzea eta ekoizpen hori burutzeko nazioarteko lan-sarea ezagutzea.



### 3. | GELETARAKO JARDUEREN PROPOSAMENA

#### 3.1. | EKOIZPENAREN IZENA: KAMELEOIA

KONTZEPTUA: Zer da *kameleioia*? Zer esan nahi du? Ze koloretakoak dira kameleoiak? Mimetizatzen al dira? Zer da mimetizatzea? Zuen inguruarekin mimetizatzeko gai al zarete?

##### • JARDUERAK

##### 3.1.1. | “BI BATAK”

Bikoteka, bata bestearen atzean kokaturik eta leku berdinerara begira, pertsona bakarra bagina bezala hasiko gara mugitzen: (*proposamena-entzumena*).





### 3.1.2. | “KAMELEOIAK KLASEAN”

Gelan dauden elementuen artean bat aukeratuko dugu, eta saiatuko gara bere itxura hartzen fisikoki (mahaia, aulkia, lehioa, atea...) Txandaka, pertsona bakoitzak aukeratuko du elementu bat eta bere itxura hartzen saiatuko da.



### 3.1.3. | ISPILUA

Bikoteka jarrita, bata bestearen aurrean jarriko dira, eta bata bestea imitatu beharko du, ispilua balitz bezala.

**Oharra:** egin dezakegu beti proposatzen duen pertsona bata izatea eta bestea ispilua, edo, bestela, proposamena eta entzumena aldiberekoak izateko, eta zailtasun maila igotzeko.





### 3.1.4. | SOKA

Bikoteka jarrita, bata bestearen aurrean jarriko da, eta imajinatu beharko dute bion sabelak lotzen dituen soka bat dutela. Beraz, eta musika erabiliz, dantza egin beharko dute, baina “soka imajinarioa” apurtu gabe.



### 3.2. | KAMELEOIA ETA ADIERAZPENA

**KONTZEPTUA:** adierazpena *mimetizatzen* al da? Besteon adierazpen erak errepikatzen al ditugu? Ba al dago zure herrian gauzak adierazteko modurik, besteetan erabiltzen ez dena? Adierazteko era aldatzen al duzu inguruan duzuna aldatzen denean?

#### • JARDUERAK

##### 3.2.1. | “AGURREN KAMELEOIA”

Gelan mugituko gara, ibiliz, eta beste kide batekin gurutzatzen garenean agurtuko dugu, baina beti rol ezberdina interpretatzen: pozik, triste, galdezka, harrituta, beldurti...





### 3.2.2. | “ANTI-KAMELEOIA”

Paperak banatuko ditugu, eta bertan agertzen diren rolak “*Kameleoida*” eta “*antikameleoida*” izango dira. Kameleoiak besteen adierazpenak imitatuko dituzte, baina “antikameleoiak” kontrakoa adierazten saiatuko dira.



### 3.3. | KAMELEOIAREN KOREOGRAFOAK

**KONTZEPTUA:** **Itzik Galili** eta **Jacek Przybylowicz** “*Kameleioia*” ikuskizunaren koreografoak dira. Beste dantza ikuskizunetan bezala, koreografoaren papera oso garrantzitsua da. Musika konpositore batek forma musikalak hartzen ditu eta esaldiak, mugimenduak, unisonoak, isiltasunak, orkestrazioak, bakarkak..., eta koreografo batek, besteak bezala, konposatzen ditu koreografiak mugimenduak, jarrerak, lineak, sarrera eta irteerak, bakarkako eta taldekako formak...

#### • JARDUERAK

“*Mugimenduaren konpositoreak*”, hau da, koreografoak izateko ekintza batzuk egiten saiatuko gara.

#### 3.3.1. | KONPOSATUTAKO ESTATUA

Seiko taldetan jarriko dira ikasleak (edo gelari ongi dagokion beste konpuru batean). Lehenengo, batek hartuko du posizio bat, hurrengoak, begiratu eta gero, beste posizio hartuko du bestearena erabiliz, eta horrela, banan-bana, guztiok kokatu arte.

**Oharra:** *jolasa jarrai daiteke, behin azkena jarri denean, lehena ateratzen bada “estatuatik”, berriro begiratu, eta beste posizio bat hartzen badu, eta horrela bigarrena, guztiok segidan.*





### 3.3.2. | KOREOGRAFIA “ZATIKA”

Bikoteka, koreografia txiki bat sortuko dute emandako musika batekin eta oso denbora mugatu batean (minutu bat). Bikote bakoitzak, gainera, gorputzaren zati bat erabili beharko du bereziki (haiek aukeratuta, edo zozketa bidez emanda). Horrela, bikote batek eskuak erabiliko ditu, beste batek begiak, edo oinak, edo belarriak, bizkarra, ukondoa, bularra... Gero, konposizioak egin ditzazkegu, bikote bat baino gehiago elkarrekin dantza egiten, edo materiala elkartrukutzen edo nahasten...

**Oharra:** pauta alda dezakegu, eta gorputzaren zatiak baino, mugimenduak mugatu: mugimendu txikiak, edo handiak, altuak edo baxuak, zorua eta zerua, zentrua edo paretak...



### 3.4. | NAZIOARTEKO KAMELEOIA

**KONTZEPTUA:** *Kameleoiaren* ekoizpenean nazionalitate pilo batek parte hartu du: dantzariak, koreografoak, jantziegileak, teknikariak...

Errazagoa edo zailagoa al da? Zer gauza izan behar dira kontuan? Zer zailtasun eta zer erraztasun ikusten dituzue? Gustatuko litzaizueke honelako proiektuetan parte hartzea?

#### • JARDUERAK

Dantzari eta koreografoen herriei buruzko dokumentazioa eta informazioa bila dezakegu:

- Nola esaten da *kaixo* edo *agur* herri horretan?
- Gure herritik zenbat kilometrotara dago? Norantz?
- Zein herritatik pasa beharko ginateke hara ailegatzeko?
- Ba al dakigu zerbait haien kulturei buruz? Gastronomia? Esan al dezakegu bertan jaiotako hiru pertsonai famatu?

Gure dantzari eta koreografoak aurkeztuko dizkizuegu!

#### ▪ DANTZARIAK:

Ane Anza (*Donostia*)  
 Beñat Urretabizkaia (*Beasain*)  
 Garazi Etxaburu (*Ondarroa*)  
 Martxel Rodriguez (*Lesaka*)  
 Carmen Derré (*Gasteiz*)  
 Alicia Navas (*El Papiol-Barcelona*)  
 Marina Scotto (*Arles-Francia*)  
 Carlos Gonzalez (*Valencia*)  
 Lionel Ah-Sou (*Toulouse-Francia*)  
 Stefan Fredriksen (*Baerum-Noruega*)  
 Fem Rosa Has (*Delft-Holanda*)  
 Mirjam Berg (*Oslo-Noruega*)  
 Josu Santamaria (*Irun*)

#### ▪ KOREOGRAFOAK:

Itzik Galili (*Tel Aviv- Israel*)  
 Jacek Przybylowicz (*Poznan-Polonia*)



### 3.5. | KAMELEOIAREN MUSIKA

**KONTZEPTUA:** musikak dantza egiten laguntzen gaitu eta mugiarazten gaitu, gida bezala erabiltzen dugu (nahiz eta koreografia ugari isiltasunean edo soinu ezberdinetan oinarrituta izatea) dantza egiteko.

Zein da dantzatzean gustatzen zaigun musika? Zein erritmo gustatzen zaigu gehien? Zergatik? Gustokoa duzu dantzatzea? Publikoan edo pribatuan? Norekin? Bakarrik? Taldeka? Bikoteka?

#### • JARDUERAK

##### 3.5.1. | ALDATU ETA ALDATU!

Musika ezberdinak entzungo ditugu eta gure dantza estiloa moldatu beharko dugu aldaketa bakoitzean. Horretarako Kameleoia-aren musikak entzun ditzakegu (erabil dezakezue sortu dugun “playlist” hau: <http://groovespark.com/playlist/KAMELEOIA/89829490>)

**Oharra:** posible da, musika aldatzea, baina beti mugimendu edo esaldi berdina mantendu beharra, musika eta erritmoari moldatuz.



### 3.5.2. | ORKESTRA

Seiko taldetan (edo gelari hobeto dagokion kopurua) kokatuko gara. Ikasle bat hasiko da bere gorputzaren zati batekin soinu bat egiten, erritmo bat mantenduz. Gero, bigarren batek hasiko da, lehenengoarekin lotuta dagoen beste soinu ezberdin bat egingo du, beste gorputz zati bat erabiliz, gero hirugarren bat... orkestra osoa osatu arte.





### 3.6. | KAMELEOIAREN JANTZIAK

**KONTZEPTUA:** jantziak eta dantza. Garrantzitsua al da janzkera dantza egiteko? Imajinatzen al duzue rock talde bat “*tutú*” batekin jantzita, edo alderantziz, “*zisneen lakua*” larruzko kazadoreekin dantzatzuz? Zer aldaketa eragin ditzazke? Gogoratzen dituzue “*Kameleoian*” erabilitako jantziak? Zein da gehien gogoratzen duzuenena? Zergatik?

#### • JARDUERAK

##### 3.6.1. | KENDU ETA JARRI

Musikaren laguntzaz, eta geletan bananduta izanen diren oihal batzuekin, jantzi ezberdinak sortuko ditugu, bakarrik, bikoteka, edo taldeka. Oihal bakoitza nola mugitzen den probatu dezakegu, gero, gorputzean kokatzeko.

**Oharra:** gauza bera egin dezakegu, baina oihalak erabili baino, egunkarietako papera erabiliz: osoa, bandatan, toles-turik, itsatsita, grapaturik...



## 4. | JARDUNALDIEN LABURPENA

### KONTZEPTUAK

| ATALA                     | KONTZEPTUA                            | GALDERAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
|---------------------------|---------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Izena: <i>Kameleoia</i> . | Kameleoia                             | Zer da kameleoia? Zer esan nahi du? Ze koloretakoak dira kameleoia? Mimetizatzen al dira? Zer da <i>mimetizatzea</i> ? Zuen inguruarekin mimetizatzeko gai al zarete??                                                                                                                                                                                                              |
| Kameleoia eta adierazpena | Adierazpena eta taldea                | Adierazpena mimetizatzen al da? Bestean adierazpen erak errepikatzen al ditugu? Ba al dago zure herrian gauzak adierazteko modurik, besteetan erabiltzen ez dena? Adierazteko era aldatzen al duzu inguruan duzuna aldatzen denean?                                                                                                                                                 |
| Koreografia               | Koreografia                           | Musika konpositore batek forma musikalak hartzen ditu eta esaldiak, mugimenduak, unisonoak, isiltasunak, orkestrazioak, bakarkak..., eta koreografo batek, besteak bezala, konposatzen ditu koreografiak mugimenduak, jarrerak, lineak, sarrera eta irteerak, bakarkako eta taldekako formak...                                                                                     |
| Nazioarteko Kameleoia     | Kultura aniztasuna, nazioartekotasuna | <i>Kameleoia</i> ekoizpenean nazionalitate ezberdinetako pertsonen parte hartu dute: dantzariak, koreografoak, jantziegileak...                                                                                                                                                                                                                                                     |
| Musika                    | Kameleoian erabiltzen diren musikak   | Musikak dantza egiten laguntzen gaitu eta mugiarazten gaitu, gida bezala erabiltzen dugu (nahiz eta koreografia ugari isiltasunean edo soinu ezberdinetan oinarrituta egon) dantza egiteko. Zein da dantzatzeari gustatzen zaigun musika? Zein erritmo gustatzen zaigu gehien? Zergatik? Gustokoa duzu dantzatzeari? Publikoan edo pribatuan? Norekin? Bakarrik? Taldeka? Bikoteka? |
| Jantziak                  | Jantziak eta dantza                   | Garrantzitsua al da janzkera dantza egiteko? Imajinatzen al duzue rock talde bat <i>"tutú"</i> batekin jantzita, edo alderantziz, <i>"zisneen lakua"</i> dantzatzuz larruzko kazadoreekin? Zer aldaketa eragin ditzazke? Gogoratzen dituzue <i>"Kameleoian"</i> erabiltako jantziak? Zein da gehien gogoratzen duzuenak? Zergatik?                                                  |

### JARDUNALDIAK

| ATALA                     | KONTZEPTUA                            | GALDERAK                                                                                                            |
|---------------------------|---------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Izena: <i>Kameleoia</i> . | Kameleoia                             | <ul style="list-style-type: none"> <li>Bi bata</li> <li>Kameleoia klasean</li> <li>Ispilua</li> <li>Soka</li> </ul> |
| Kameleoia eta adierazpena | Adierazpena eta taldea                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Agurren kameleoia</li> <li>Antikameleoia</li> </ul>                          |
| Koreografia               | Koreografia                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>Konposatutako estatua</li> <li>Koreografia "zatika"</li> </ul>               |
| Nazioarteko Kameleoia     | Kultura aniztasuna, nazioartekotasuna | <ul style="list-style-type: none"> <li>Dokumentazio bilaketa</li> </ul>                                             |
| Musika                    | Kameleoian erabiltzen diren musikak   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Aldatu eta aldatu!</li> <li>Orkestra</li> </ul>                              |
| Jantziak                  | Jantziak eta dantza                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kendu eta jarri</li> </ul>                                                   |



## 5. | FITXA TEKNIKO

**DANTZARIAK** | Lionel Ah-Sou, Ane Anza, Mirjam Berg, Carmen Derré, Garazi Etxaburu, Stefan Fredriksen, Carlos González, Alicia Navas, Martxel Rodriguez, Fem Rosa Has, Josu Santamaría, Marina Scotto, Beñat Urretabizkaia.

**ZUZENDARI ARTISTIKOA** | Adriana Pous

**EKOIZPEN ARDURADUNA** | Sofía Alforja

**ARDURADUN TEKNIKO** | Alberto Arizaga (Eragin Stac)

**TALDE TEKNIKO** | Eragin Stac

**JANTZI-ARDURADUNA** | Benedetta Orsoli

**BIDEOAK** | Iñaki Alforja

**DISEINU GRAFIKO** | Irene Altuna

**GIDA DIDAKTIKO** | Miren Irueta

**ZUZENDARI NAGUSIA** | Fernando Sáenz de Ugarte

*Jardunaldietako argazkietako umeak: Dantzarte Dantza Eskola (Ondarroa)*

Maddi Aranburu, Nayra Agirretxea, Nagore Lopez, Ane Eizagirre, Ainara Moreira, Jaitz Julian, Enara Ituarte, Nahia Marino, Ane Alkorta, Naroa Badiola, Naiara Bilbao, Itxaro Bilbao, Lore Txakartegi, Nahia Badiola, Niamey Gallego, Niko Morsby

---

### DANTZAZ KONPAINIA

Arteleku- Dantzagunea  
Kristobaldegi, 14  
20014 Donostia-San Sebastián  
Tel: +34 943 470 021  
didak@dantzaz.net  
www.dantzaz.net